



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2018KO URRIAREN 19AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia

Etorri diren zinegotziak:
Itziar Arratibel Imaz
Jexus Peñagarikano Labaka
Jon Mikel Iglesias Otegui

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Lierni Muñoa Salaverria

Ibarran 2018ko urriaren 19an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.- AURREKO TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKTEN ONARPENAK

1.1.- 2018KO IRAILAREN 28KO AKTA

2018ko irailaren 28an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2018ko irailaren 28an eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA

2.- 2018KO URRIAREN 15EAN OSPATUTAKO INGURUMEN, MERKATARITZA ETA NEKAZARITZA BATZORDEAREN IRIZPENEN INGURUKO ERABAKIAK

2.1 KANPO ARGITERIA PUBLIKOA LEYCOLAN-EN PROPOSAMENA ONARTZEA

Idazkaritzak jakinarazten du proposamena onartzeko teknikariaren, idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak falta direla.

Hurrengo Gobernu Batzordean onartuko dira txostenak barneratzen direnean.

HIRUGARRENA

3.- BELABIETA KIROLDEGIKO TERRAZAK IRAGAIZTEKO ETA FATXADA ESTALDURA BERRITZEKO OBRA LANAK UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS S.L ENPRESARI BEHIN-BETIKO IZAERAREKIN ESLEITZEA

2018ko irailaren 14an burututako Tokiko Gobernu Batzordeak Belabieta kiroldegiko terrazak iragaitzteko eta fatxada estaldura berritzeko obra lanak Unebide Obras y Contratas S.L enpresari behin-behineko izaerarekin esleitu zizkion.

2018ko irailaren 18an jakinarazi zitzaion Unebide Obras y Contratas S.L enpresari honako dokumentazioa aurkeztu behar zuela:

1. Behin betiko berme gisa 3.122,83 euroko kopuruaren ordainketaren ziurtagiria aurkeztea (KUTXA ES48 2095 5043 94 1063684178 edo abal bidez)
2. Plegu Administratiboko 33 artikuluan aipatzen diren dokumentu eta ziurtagiri orginalak aurkeztea.
3. Plegu Administratiboko 23(haserako plantilakoa) ezarritako dokumentuen eta ziurtagirien aurkezpena
 - a. Erantzunkizun zibileko aseguruia 102.401,87 eurokoa
 - b. Eraikuntzako arrisku orotarik aseguruia: 75.572,60 eurokoa
4. Plegu Administratiboko 37. Artikuluan eskaturiko dokumentuen eta ziurtagirien aurkezpena



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Behin-betiko bermea 2600 sarrera zenbakiarekin aurkezturiko dokumentuaren bidez egiaztatu da.

Idazkaritzak 2018ko urriaren 8an 2401 erregistro zenbakiarekin sarrera eman zitzaion dokumentazio bidez egoki aurkeztu dutela jakinarazi du.

Guztia azterturik, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENA.- Onartzea behin betiko esleipena UNEBIDE CONTRATAS S.L enpresaren alde egitea Belabieta kiroldegiko terrazak iragaitzeko eta fatxada estaldura berritzeko obra lanak 62.456,69 euro (BEZa gabe) kopuruan egin ditzan.

BIGARRENA.- Eskatzea Unebide Contratas S.L enpresari plegu administratiboan adierazten den honako dokumentazioa aurkeztea kontratua formalizatu dadin

1.- Azpikontratuak egin ahal izateko, baldintza hauek bete behar dira:

- Azpikontratisten izena, harremanetarako datuak eta lege ordezkariak zeintzuk diren adierazi beharko du, eta, era berean, azpikontratistek kontratua gauzatzeko gaitasuna dutela behar bezala justifikatu beharko du, baita Administrazioarekin kontratatzekeo debeku egoeran ez daudela ere.
- **Azpikontratistak Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratuko 71. artikuluan aurreikusten diren kontratatzekeo debeku edo gaitasun eza ez dituela egiaztatu ahal izateko, kontratistak nahitaez aurkeztu beharko du azpikontratistak sinatutako erantzukizunezko aitortpen bat, gauzak horrela direla adierazten duena.**

Kasu horietan, jarduerari ekin baino lehen, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da, Jarduera enpresarialen koordinazioari buruzko urtarrilaren 30eko 171/2004 Errege Dekretua betez:

- a) Kudeaketa prebentiboko dokumentua, baita hartu beharreko prebentzio neurriak ere.
- b) Egin beharreko lanen prebentzio jardueren plangintza.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

- c) Bereziki bermatu beharko da enpresa azpikontratatistak laneko segurtasun eta osasun esparruko betebeharrak guztiak betetzen dituela, eta zehazki, prebentzio jardueren koordinazioari eta beharrezko prebentzio baliabideak eskuragarri jartzeari buruz, araudiak xedatutakoa betetzen dela

LAUGARRENA

4.- MUNDU MIRA KOOPERATIBA ELKARTEARI ESLEITURIKO KOMUNIKAZIO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUAREN LUZAPENA

2016ko irailaren 13an 322/2016 Alkate Dekretu bidez Mundu Mira Kooperatiba elkarteari Ibarra Udalaren komunikazio zerbitzua ematea eslaitu zitzaion. KONtratu 2016ko urriak 17an sinatu zen eta 2018ko urriak 17an amaitzen da.

Kontratu honetan 2 luzapen egiteko aukera dago, horrela jakinarazten du Idazkariak.

Guztia kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko erabakia

ERABAKIA

LEHENENGOA.- 2019ko urriak 17rarte luzatzea 2016ko irailaren 13an esleituriko, 322/2016 Alkate Dekretu bidez Mundu Mira Kooperatiba elkarteari, Ibarra Udalaren komunikazio zerbitzuaren kontratua.

BIGARRENGOA.- Erabaki honen berri eman Mundu Mira Kooperatiba elkarteari, kontratua luzatzeko nahia agertu dezan eta luzapena sina dadin,

BOSGARRENA

5.- 89 FAKTURARREN ONARPENA ETA ORDAINKETA AGINTZEA: GOITU ERAIKUNTZAK S.L-K IGORRITAKO EGI ERAIKINEAN EGINDAKO USTUKETA LANEN INGURUKOA

2018 fakt 001943 espedienteko 89 zenbakidun faktura, Goitu enpresa aurkeztua, amaierako ziurtagiria aurkeztu ez denez ezingo da ordaindu

Mahai gainean gelditzen da

SEIGARRENA

6.- 2018/09/28 DATAREKIN 2018KO UZTAILA EPERAKO TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAK HONDAKINEN KUDEAKETA ETA TRATAMENTUAREN



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

INGURUAN IGORRITAKO FAKTURAREN ONARPENA ETA ORDAINKETA AGINTZEA

Tolosaldeko Mankomunitateak 2018ko irailaren 28an, 2018 ko uztaila eperako faktura aurkeztu zuen, hondakinen kudeaketa eta tratamenduaren ingurukoa alegia.

Guztira kopurua 29.391,29 eurotako da.

Guztia azterturik, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Onartzea Tolosaldeko Mankomunitateak 2018ko irailaren 28an, 2018 ko uztaila eperako

BIGARRENGOA.- Onartutako fakturen baitan, 29.391,29 (BEZa barne) ordaintzeko agindua ematea Kontuhartzailletza departamentuari.

I

ZAZPIGARRENA

7.- 2018/09/28 DATAREKIN 2018KO ABUZTU EPERAKO TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAK HONDAKINEN KUDEAKETA ETA TRATAMENTUAREN INGURUAN IGORRITAKO FAKTURAREN ONARPENA ETA ORDAINKETA AGINTZEA

Tolosaldeko Mankomunitateak 2018ko irailaren 28an, 2018 ko abuztuko eperako faktura aurkeztu zuen, hondakinen kudeaketa eta tratamenduaren ingurukoa alegia.

Guztira kopurua 29.528,50 eurotako da.

Guztia azterturik, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Onartzea Tolosaldeko Mankomunitateak 2018ko irailaren 28an, 2018 ko abuztuko eperako

BIGARRENGOA.- Onartutako fakturen baitan, 29.528,50 (BEZa barne) ordaintzeko agindua ematea Kontuhartzailletza departamentuari.


I



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu jaunak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamaikak eta hogeita hamazazpi direnean, eta nik, idazkari naizen honetan, horixe egiaztatu nahi dut

Ibarrako Udaleko idazkaria



Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2018ko urriaren 23 an